



# DONOSTIA KULTURAREN EKONOMIA ETA GIZARTE INPAKTUA

Donostia Kulturaren ekonomia eta gizarte inpaktuak hiru ikuspegi hartzen ditu barnean:

Donostia Kultura **Kultur Biltzaile** gisa, hirian modu egonkorrean garatzen diren kultur zerbitzuak eta jarduerak biltzen dituen antolamendu zabal eta konplexu batean, hiritarrekiko hurbiltasunetik eta elkarlanetik sortu eta mantentzen den antolamendu batean.

Donostia Kultura **Gizarte Kapitalaren Sortzaile** gisa, garatzen duen kultur jardueraren ekarpena, hiritarrei zuzendutako zerbitzu gisa ez ezik, gizarte balio kolektiboko sortzaile gisa ere aintzat hartzen duena.

Donostia Kultura **Ekonomia Jardueraren Motor** gisa, Donostiako ekonomian duen eragina dimentsionatzen duena eta kulturak jardueraren eta enpleguaren trakzio elementu gisa duen eragina nabarmentzen duena.

# 1. KULTUR BILTZAILEA

**1.A.- DONOSTIA KULTURAK** Udalak kulturaren esparruan, zentzu zabalean eta anitzean, egiten dituen ahaleginak hartzen ditu barnean.

## a) Lau ekipamendu/zerbitzu sare:

- ≡ **Kultur Etxeak:** hiri bilbean banatutako 10 ekipamendu, auzo bakoitzeko hiritarren lehen mailako kultur arretarako zerbitzu gisa eratuak. Hurbiltasuneko kultur zerbitzuak eskaintzen dizkiote hurbileko inguruneari (erakusketetatik prestakuntza ikastaroetara, bilerak egiteko espazioetatik askotariko lantegietara,...) eta, aldi berean, kasu jakin batzuetan, espezializazio ildoak garatzen dituzte, gai jakin baterako hiriko erreferente gisa (arte eszenikoak Lugaritzen eta Gasteszenan, musika Intxaurren,...
- ≡ **Liburutegiak:** auzo bakoitzeko Kultur Etxeen ekipamenduan sartzen dira; nagusiei zein haurrei zuzendutako hiri mailako erreferente zentralaz gain, gaikako hainbat liburutegi dago edo berriazko espazioetan kokatutako hainbat liburutegi dago.
- ≡ **Museoak:** San Telmo Museo berria da Donostia Kulturaren eskaintza artistikoaren ikur nagusia, eta horrekin Urgulleko Historiaren Etxea eta Kultur Etxe bakoitzeko erakusketa aretoak daude –arlotan garrantzi berezia du Okendo Kultur Etxeak–.
- ≡ **Ekipamendu eszenikoak eta antzokiak:** Victoria Eugenia Antzokia, Antzoki Zaharra, Imanol Larzabal (Lugaritz), Intxaurrenoko Kultur Etxea, Gazteszena (Egiako Kultur Etxea), Larratxo.

## b) Hiru gai arlo, honako adierazpen artistiko hauetako udal eskaintza orokorra eta jaialdiak kudeatzen dituztenak:

- ≡ **Zinema:** hiriaren ezaugarrietako baten, zinemaren, berezko arloa, urte osoan jarraipena eta koherentzia duena askotariko jarduera, ziklo eta zinemaldien bidez –hala nola beldurrezkoa edo giza eskubideetako–, beste jarduera independenteetarako sarbide izanik.
- ≡ **Arte eszenikoak:** hainbat publikori erantzuten dion eta hainbat eskaintza ildo dituen urteko programazio osoa bideratzen da, udal ekipamendu nagusietan (Victoria Eugenia antzokian eta Antzoki Zaharrean) zein Kultur Etxe espezializatuetako espazioetan (Antigua eta Egia); horrez gain, profesionalei (produktoreei, programatzaileei, eta abar) zuzendutako jaialdia (dFERIA) antolatzen da urtero, produkzioa eta banaketa laguntzeko erakustazoka gisa.

≡ **Musika:** hainbat musika eskaintza nagusi barnean hartzen ditu, eta Jazzaldia da motor nagusia; arlo horretan espezializatuta dauden Kultur Etxeek (Intxaurrondokoak) edo historikoki rol hori bete dutenek (Egiakoak) antolatzen dituzten ekintzek osatzen dute musika eskaintza.

≡ **Literatura** , eta beste batzuk...

**c) Jai arloa:** ekitaldi eta tradizio ludikoen eta identitarioen inguruan (Aste Nagusitik San Sebastian egunera; estropadetatik San Tomas egunera, eta abar) hiritarren antolamendua eta mobilizazioa bere gain hartzen duen eta errazten duen arloa da. Hiriko jai ekitaldien zuzeneko antolamendua biltzen du, baita horiek posible egiten dituzten gizarte zibileko eragileen (elkarte eta abarren) eta/edo ekitaldi osagarriak sortzen dituztenen (auzo eta abarren) koordinazioa, euskarria eta babesa ere.

**d) Zeharkako hiru kudeaketa arlo: Zerbitzu Zentralak,** gainerako arloetarako komunak diren zerbitzuen koordinazioa, administrazioa eta kudeaketa beteko dutenak; **Informazioa eta komunikazioa,** hiritarrekiko elkarreraginaz eta markaren kudeaketaz arduratuko den zerbitzu espezializatu gisa; eta **Produkzioa,** ekipamenduen kudeaketari eta ekitaldien antolamenduari laguntzeko zerbitzu gisa.

Jarduera hori antolamendu zabal eta konplexu batek eusten du; 213 langile daude lantaldean, eta horiek dira jardueraren kudeatzaileak. Edonola ere, bestelako jarduerak (segurtasuna, garbiketa eta abar) garatzeko azpikontrataturako laguntza profesionalen babesa izango da, urtean beste 136 enplegu osagarriekin. Horrez gain, kultur kolektiboetako eta elkarteetako boluntario kopuru handia batek laguntzen du jarduerak garatzen: **115 boluntario, aldi osorako.** Horrenbestez, Donostia Kulturak, guztira, 464 enplegu dituen antolakunde baten lantalde baliokidea mugitzen du, Giza Baliabideei dagokienez.

## 2. GIZARTE KAPITALAREN SORTZAILEA

**2.A.-** Europako beste esperientzia batzuen aurrean, non kultur ekipamenduek zerbitzuak ekipamendu handi baten espazioaren inguruan antolatzen dituzten, Donostia Kulturak espazio

eredu “banatuaren” aldeko hauta egin du, hiritarrekiko hurbiltasunaren aldeko apustu argian; hurbiltasun hori bihurtu du, hain zuzen ere, kultur estrategiaren motor. “Udal logika banatu” hori da Donostia Kulturaren bereizgarria eta ezaugarria, maila goreneko hiriko kultur eskaintza eta hurbileko edo auzoko kultur eskaintza uztartzen baititu, betiere hiritarregana hurbiltzen duen eta gizarte rola areagotzen duen cocktail batean.

**2.B.-** Hartara, hurbiltasuneko eta hiri mailako eskaintza horien bidez, Donostia Kulturak jarduten du ...

Hiritarren bizitza osorako kultur erreferente gisa: hurrekin lotzen den sentsibilitatea eta irakurketa lantzeko espazioa; gazteei ikasketetan laguntzeko espazioa; gurasoei heziketa errazteko ekipamendua; maila goreneko hainbat motatako ikuskizun artistikoen (zinema, musika, antzerkia, dantza eta arte plastikoak) gozamen ludikorako espazioa, batez ere adin ertaineko jendea erakartzen duena; errealizazio pertsonalerako ikastaroen eskaintza, hirugarren adineko jendea gero eta gehiago erakartzen duena aisialdia kulturaz betetzeko; kulturaren jardun aktiboa eta sentsibilitate artistikoa sustatzeko puntua.

Identitateen erreferente kolektibo gisa, taldeekin eta elkarteekin egindako lanaren bidez eta parte hartzeko dinamiken sustapenaren bidez; gizarte proiektu partekatuen sustapena, proiektu horiek elkarlaneko, konfiantzako eta kohesioko sareak sortzen baitituzte hiritarren artean eta hiritarren eta erakundeen artean; eta hiritarren kultur jarduerak eta ekimenak garatzen laguntzeko rola.

Berdintasuneko, iraunkortasuneko eta ingurumeneko zeharkako balioen haztegi eta sustatzaile gisa, hurbilketen osotasunerako zeharkako ezaugarri edo euskarri bihurtuta.

Beste erakunde batzuekin sarean lan egitearen sustatzaile gisa. Adibidez: Ballet T, Eszena T

**2.C.-** Donostiako gizartea kultuagoa eta, hartara, irekiagoa, pluralagoa eta parte hartzaileagoa egingo duten sentsibilitateak, balioak eta identitateak sortzeko eragina duen lan-dinamika da. Dinamika horretan ezin dugu jada Donostia Kultura udal egituratzat jo, mugiarazten duen "hiritarren kulturatzat" jo behar dugu.

**2.D.-** Donostia Kultura, horrela, “aterki marka” bihurtuko da (izen handiko beste batzuk bere gain hartzen dituenak): STM, Heineken Jazzaldia, Donostikluba, Victoria Eugenia, Literaktum, eta

abar). Era berean, Udalaren –euskarri egitura gisa– eta hiritarren arteko gizarte eraikuntza definituko du, eta, horretarako, hiritarrak erabiltzaileen/parte hartzaileen kultur erkidego aktibotzat hartuko ditu –ekitaldi bakoitzari bizitza ematen diote, ekipamenduak okupatzen dituzte, baliabideak erabiltzen dituzte eta zerbitzuak baliatzen dituzte–. Donostia Kultura, beraz, gizarte kohesioko tresna eta zeharkako balio zibiko partekatuko tresna bihurtu da; baita lehen mailako sustapen ekonomikorako motorra ere.

Horrenbestez, Donostia Kultura markak gero eta bazkide gehiagoko erkidegoa osatzen du, 84.023 bazkiderekin (azterketa hau egin den unean); gehienak, % 79, donostiarrak dira, baina Lurralde Historikoaren gainerakotik datozenak ere kopuru handia dira, % 21; Emakumeak dira nagusi, % 60; eta biztanleriaren adin piramide osoa hartzen du. Donostiako kultur kontsumoaren eta jardunaren gunea dira, baita Donostia Kulturaren bihotza ere.

### **3. HIRIAREN EKONOMIA MOTORRA**

**3.A.** Azkenik, Donostia Kulturak garatutako jarduera garrantzi handiko ekonomia motorra da hirirako...

Haren antolamendu handiak enplegu kopuru handia eta aurrekontua handia sortzen baitu, tokiko ehunean txertatzen dena.

Antolatzen dituen ekitaldien inguruan jendea mugiarazteko ahalmen handia baitu eta hirugarren sektorerako aparteko gastua eragiten baitu.

Hurbileko zerbitzuen eskaintzak erabiltzaileen fluxuak mantentzen baititu egunero, eta horrek modu erabakigarrian laguntzen baitu kanpoko jendea erakartzeko ahalmen txikia duten auzoetako merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen iraunkortasunean.

Eskaintzen dituen doako zerbitzu publikoak finantza aurrezpen handia baitira familientzat.

Kulturaren arloko tokiko ekintzaitzarekin eta sormen industrien ehunarekin duen loturak euskarria eskaintzen baitio kultur sektoreari.

...

**3.B.** Donostia Kulturaren jarduerak duen dimentsio ekonomikoaren arabera, honako alderdi hauek bereizi dira:

**a) Donostia Kulturaren antolamendua eta aurrekontua (zuzeneko inpaktuak).**

Donostia Kulturak **25.248.896 euroko** aurrekontua du garatzen duen jarduerari eusteko eta jarduerak gauzatzeko. Horretarako, bere lantaldeaz, hainbat zerbitzutako profesionalen eta teknikarien elkarlanaz eta boluntarioen laguntzaz baliatzen da. Aurrekontuaren % 75 (19.005.660 euro) udal ekarpenarekin estaltzen da; % 17 garatutako jarduerak sortutako sarreren bidez estaltzen da; eta % 8 erakunde publikoen bestelako ekarpenen bidez edo bestelako sarreren bidez.

**b) Erabiltzaileek mobilizatutako gastua (zeharkako inpaktuak)**

Aurrekontu horrek askotariko zerbitzuak, jarduerak eta ikuskizunak ahalbidetzen ditu, eta, oro har, urtero 2.828.000 bertaratze baino gehiago sortzen duen kultur eskaintza prestatzen da<sup>1</sup>: Horien erdia, 1.483.748, Kultur Etxeen eta Liburutegien **erabiltzaileak** dira; 831.098 festetako jardueretara bertaratutakoak dira; 273.597 Musika, Zinema eta Arte Eszenikoetako ikusleak dira; eta 240.000 museoetako bisitariak dira.

Donostia Kulturako ekitaldietara bertaratzen direnek edo zerbitzuak erabiltzen dituztenek 62,8 milioi euroko gastua egiten dute urtero Donostiako zerbitzu establezimenduetan (garraioan, dendetan, ostalaritzan, ostaluetan, merkataritza zerbitzuetan...); horrenbestez, hiriko ekonomiaren jarduera motor garrantzitsua dira.

Gastu horren % 58 (36,3 milioi euro) festen kapituluak hartzen du, eta batez ere Aste Nagusiak; gastuaren % 22 (13,6 milioi euro) Kultur Etxeetako eta Liburutegietako bisitek hartzen dute

---

<sup>1</sup>Bertaratzeak, pertsona eguneko.

(auzoen ekipamenduen inguruko ohiko gastuaren barruan dago, eta ingurune horien bizi kalitatea eta gizarte kohesioa areagotzen du); musikak % 10 (2,2, milioi euro) hartzen du eta protagonismo berezia du Jazzaldiak; eta gastuaren gainerako % 10a arte eszenikoetako, zinemetako eta museoetako ikusleek estaltzen dute.

### **C) Produkzio ehunean eragindako gastuaren osotasuna (eragindako inpaktua)**

Gastu horiek –Donostia Kulturarekin zuzenean lotzen den jarduerak, aurrekontu gauzatze bidez, sortutako gastua (25.248.896,33 euro) gehi ikusleek sortutako hirugarren sektoreko gastua (62.811.508,15 euro)– zenbait sektore erlazionatuetako tarteko produkzioak pizten dituzte, eta **guztira 132.090.606,72 euroko PRODUKZIOA eragiten dute. Produkzio horrek 70.448.323,58 euroko Barne Produktu Gordina dakar; eta hori gauzatzeko urtean 1.145 enplegu eskatzen ditu.**

### **d) Administrazioarako itzulera**

Izatez, Donostia Kulturak eragindako jarduera bolumen horrek –gastuak, produkzioak eta enpleguak– **22.552.054 euroko sarrera publikoak sortzen ditu dagozkion erakunde mailetan, betiere zerga ezarpenen bidez eta gizarte segurantzako ezarpenen bidez.** Zenbateko horrek aurrekonturako udal ekarpena ez ezik, ekarpen publiko osoa ere gairatzen du.

### **e) Beste ekonomia inpaktu batzuk**

Inpaktu horiek garrantzi handikoak diren beste ekonomia inpaktu batzuekin osatzen dira, hala nola dFERIAk arte eszenikoen produkzio ehunean eragiten duen inpaktu profesionala (ekitaldiaren antolamenduak mugitzen duen aurrekontuaren 7,1aren fakturazio baliokidea sortzen du bertaratzen diren konpainietan) edo liburutegietako maileguen doako zerbitzuen edo museoetara egiten diren doako bisitaldien balio ekonomikoa –erabiltzaileentzako 3.520.557 euroko balioa–. Horrez gain, aintzat hartu behar dira balantze horri egiten zaizkion ekarpen kuantifikatu gabe handiak, Donostia Kulturako “marken” ekarpenak eta Donostia Kulturako bazkideen kultur elkartearen ekarpenak.